

UHERRA ISPILU

I.

Irudiak gara
Beldurraren ispiluetan
Urtuak.
Jainkoa dute
Aldamenean
Aholkulari.
Ez dakite
 Barkatzen
Ba dakite
 Bakartzen:
 Irudiak gara
Neguaren
Atarian
Imilitz.
Izuak garamatza
Nahi ez dugun lekura.
Jainkoa dute
Aldamenean

Aholkulari.
Ez dakite
 Barkatzen
Ba dakite
 Bakartzen.
 Irudiak gara
Fantasma itsuak
Gorputzik gabeko
Dolamen pisuak.
Jainkoa dugu
Aldamenean
Aholkulari.
Ez dakigu
 Barkatzen
Ba dakigu
 Bakartzen.

II.

Itzulpen automatikoak martxan dira ez dugu jada elkar ulertzen uhertzen doaz ispiluak zer diozu zuk *desolation row* etorbidean banatuko da aurten nobel saria dinamita hutsa dinamita hutsa zer nahi duzu zuk jakin zenbat *followers* dituzun bazterretan zakila hertsatzen dira aluak idortzen non dago atsegina odolezko mihiak lerratzen dira kantxetan eta pilota klaskak dira zartagailu hutsak zartagailu hutsak hotzak malgortzen ditu gorputzak pentsuak batzuen eta besteen urguilu ximixtak hi baino gehiago nauk/n buru makur amesten gaituzte pairatzen lehiatzen sakea zabalera eta tanto datsegit ez datsegit ez dugu jada elkar ulertzen aditzak bermatzen dira aizkoak bezain zorrotz eta trinko eta trinko eta trinko erran beharra urkatzeraino aita hiltzeraino ama hiltzeraino anaiak hiltzeraino ahizpak mututzeraino *no direction home* gabiltza denak itzulpen automatikoak martxan diren arren

Zer diozu zuk bob

III.

Aturri datza zilar
Martxoko goizetan:
Nagituko naiz bihar
Bake otoitzetan...

Ezerk ez nau babesten
Hutsaren aldetik:
Ez dut nigan sinesten
Ene debaldetik...

Histen du ur gaina
Arrantza sareak,
Bai eta ezpaina
Zalantza bareak...

*Itxaro Borda
2016ko urrian
Baionan*